

## **Arriskuan diren hizkuntzen atlasa Unesco, 2009ko urtarrilean**

Mundu zabalean mintzatzen diren 6 000 hizkuntzetarik 2 500 mende honetan desagertzeko arriskuan dira. Unescoren izenean, 30 hizkuntzalari jakitunek hizkuntzen diagnosia bat definitu dute 5 maletan :

200 hizkuntza desagertu dira azken 3 belaunaldietan, azken hiztuna hil delarik ;  
538 hizkuntza desagertzeko egoera larrian dira, zaharrek bakarrik mintzo baitute ;  
502 hizkuntza arrisku handian dira, gurasoek ez baitie haurrei transmititzen ;  
632 hizkuntza arriskuan dira, bigarren mailako hizkuntzak baitira ;  
538 hizkuntza egoera ahulean daude, anitzek badakite baina gutik erabiltzen.

Bederazi erizpide erabili dituzte hizkuntzen osasuna neurtzeko, adibidez hiztunen kopurua eta trinkotasuna, belaunaldien arteko jarraipena eta hizkuntza politika.

2009an, Unescoren atlasak diagnosia orokorra definitzen du euskararentzat, ahulezian dauden hizkuntzetan sailkatuz : haur anitzek ikasten dute, baina gizarte erabilera eremu urri batzutarra mugatua da. Euskararen ahulezia Euskal Autonomia Erkidegoan baino kezkarriago da Iparraldean eta Nafarroan.

2001ean, Atlasak Frantziako euskara bereizten zuen erranez desagertzeko arrisku larrian zela. Beraz Unescoren arabera, orduan euskara desagertzeko bidean zen Iparraldean eta orain biziberritzeko bidean da. Zergatik diagnosia hobetu da ?

Anartean euskaldunen kopurua ez da emendatu. Halere belaunaldien arteko jarraipenak %30aren marra gorria gainditu du, ehuneko hori baita hizkuntza baten biziraupenaren muga. Baina geroztik antolatu den hizkuntza politika da hobekuntzaren froga nabaria : 2001-2006 Hitzarmen bereziaren bidez eta bereziki Euskararen erakunde publikoa sortuz geroztik (2005). Beste seinale baikorrak ere badira : Eusko Jaurlaritzarekin indartzen ari den lankidetzak kulturala eta eskualde hizkuntzen sarrera Konstituzio frantsesean.

Katalanera eta galiziera arriskuz kanpo emanak dira. Gauza bera gertatuko da euskararentzat, giearte erabilera zabalduke delarik eskolako irakaskuntza bezain laster (%30 Iparraldean, %40 Nafarroan, %90 Euskal Autonomia Erkidegoan).